

Euskal AEko industriako enplegua aurreneko aldiz gehitu da 6 urtetan

Industriak eginiko inbertsioa goraka (%7,5), 2014an nabarmen jaitsi ondoren

Eustaten datuen arabera industrian 2015ean 194.458 okupatu genituen, 2014an baino %1,1 gehiago, sei urtez beheraka egin ondoren.

Balio Erantsi Gordinean, faktoreen kostuetan, %3,4ko hazkundera (%1,2, 2014an). Euskal industriaren produktibitatea 2015ean, enplegatuko balio erantsiaren terminoetan neurtuta, 69.645 €, %2,3ko gehikuntza aurreko urtearen aldean.

Inbertsioa %7,5 gehitu zen 2015ean; 2014an nabarmen jaitsi zen. Oraindik ere krisi aurreko balioetatik urruti dago.

2015ean negozio-zifra garbiak %1,7ko jaitsiera nominala; hornikuntza eta kanpo zerbitzuetako gastuak gehiago jaitsi direnez apaldu egin da negozio-zifraren beherakada eta balio erantsiaren hazkuntza erraztu.

1. koadroa. Industriaren aldagai nagusiak. Euskal AE. Urteko prezioak (mila €)

	2015	2014	Δ %
Landunak NU	194.458	192.387	1,1
Negozio zifraren zenbatekoa guztira	54.890.865	55.865.644	-1,7
Hornimenduak	33.792.479	34.993.118	-3,4
Kanpo-zerbitzuak	7.470.075	7.562.684	-1,2
Lagileria-gastuak	8.306.777	8.386.566	-1,0
Balio erantsi gordina faktore-kostuetan	13.542.946	13.101.641	3,4
Egindako inbertsioak	1.840.799	1.712.525	7,5

Iturria: Eustat. Industriaren estatistika

Industriaren eta Energiaren **sekzioetan**, *Manufaktura industria* aipatu behar, okupatu guztien %95,6, negozio-zifraren %84,2 eta balio erantsi gordinaren %86,6. Manufaktura-industrian, 2015ean: okupatuak %1,3 gehitu; balio erantsia %6,5; salmentak %1,2 jaitsi.

Manufaktura industriaren barruko gehikuntzak: Garraio materialean enplegua %1,7 gehitu da, salmentak %8,5, balio erantsia %11,2. Makineria eta ekipoen %2,3, %8,7, %7,2. Jaitsierak fakturazioan, 2015ean: Kokeriak eta petrolio fintzea (%-18,8); Metalurgia eta produktu metalikoak (%-2,7); Material eta ekipa elektrikoa (%-11,4). Azken horretan enpleguan %-4,5 eta balio erantsian %-16,6. Metalurgian, enpleguan %+0,9 eta balio erantsian %-1,0.


2. koadroa. Jarduera sekzioak. Euskal AE. Uneko prezioak. Mila €. 2015

	Langile okupatuak	Negozio zifra	Pertsonal gastuak	Balio erantsi gordina faktore-kostuetan
Industria eta Energia	194.458	54.890.865	8.306.777	13.542.946
Erauzteko industriak	467	212.299	22.838	45.891
Manufaktura industria	185.861	46.231.527	7.857.763	11.732.904
Energia elektrikoa, gasa, lurrina	2.255	7.447.268	191.930	1.343.287
Ur homidura, saneamendu jarduerak	5.875	999.771	234.246	420.864

Iturria: Eustat. Industriaren estatistika

2015ean, atzerrirako salmentak, euskal manufaktura industriaren %43,9, ehuneko 0,7 puntu gehiago 2014an baino eta 2008an -krisiaren hasieran- baino 10,9 gehiago. Salmenta osoen %28,1 Europar Batasunera; %15,9, Munduko gainerakora. Estatuko gainerakorako salmentak ehuneko 1,1 puntu gehitu 2014koen aldean; halere 2008koen aldean ehuneko 7,5 puntu gutxiago; 2015ean, salmenta guztien %29. Euskal AEn bertan salmenten %27; 2014an baino 1,8 puntu gutxiago eta 2008an baino 3,4 puntu gutxiago.

1. grafikoa. Manufaktura industriaren salmenten norakoa. Euskal AE. Uneko prezioak. Mila € eta %. 2015




Iturria: Eustat. Industriaren estatistika

Garraio materialean, salmenten %75 atzerrira; *Makineria eta ekipoan* %60, 2015ean. *Material eta ekipo elektrikoa* sektoreak %25 esportatu zuen 2008an eta 2015ean %46.

Industria eta energia barruko **produktibitate** handienak: *Produktu farmazeutikoak* (pertsonako 126.000 euro); *Erauzketa-industriak*, 98.000. Aparte laga dira *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (596.000) eta *Kokeriak eta petrolio fintzea* (391.000). Produktibitate txikiak: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (37.000); *Altzariak eta beste manufakturak* (44.000). Manufaktura industriaren batez bestekoa 63.127 euro (2014an baino %5,1 gehiago; Industria eta energian, osorik, 69.645 (%2,3 gehiago).

2. grafikoa. Produktibitatea sektoreka. Euskal AE. Uneko prezioak. Mila €. 2015



Iturria: Eustat. Industriaren estatistika

Negozio zifra lurraldeetan: Araban %+1,2; Gipuzkoan %+2,7; Bizkaian %-6. Enplegu okupatua: Araban %+0,7, Bizkaian %+0,7, Gipuzkoan %+1,7. Balio Erantsia: Araban %3,8ko hazkundera; Bizkaian %3,4; Gipuzkoan %3,1.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko industriaren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko industriaren estatistikari buruzko datu-bankua